

# **KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA**

**MEMORIA  
2018-2019**

## PR21-Aholkularitza

Arabako ikastetxeetan erreferentzi lanak eta prestakuntza ematen duten Gasteizko Berritzegunetako 24 aholkularien lana islaturik agertzen da ondoko zerrenda eta txostenetan:

- [NM2102](#) mota guztietako lanak ahalik eta hoberen aurrera eraman ahal izateko asmoarekin Gasteizko Berritzeguneetako aholkulariek **barne-antolaketa** bat dute, eskema honetan ikus daitekeena.
- [NM2103](#) eskema honetan aholkularitzen esleipena lan-taldeka eta lan ildo desberdinekiko erreferentziak ikus daitezke
- [LI2102](#) zerrendan Arabako 106 ikastetxe bisitagarriak eta aholkularitza bakoitzaren erreferentzizko ikastetxeak ikus daitezke, [LI2103](#)an berriro daude ikastetxeak formakuntza aholkularitzaz sailkaturik eta, azkenik, [LI2104](#) zerrenda Hezkuntza Premia Berezitako aholkularitzak.
- [DC2101](#) txantiloian aholkulariek ikasturtean zehar ikastetxeetan eginiko eskuhartze eta bisita guztiak ikus daitezke
- [DC2102a](#) eta [DC2102b](#) txantiloietan **eskuhartze esanguratsuak** kontsulta daitezke.

2017-2018 ikasturte honetan 145 eskuhartze esanguratsu egon dira eta batz bestekoa **8,16**koa izan da. Euren artean bitan ez gara iritsi minimora (NC1819003 eta NC1819005) eta horrekiko zehaztapenak LI3101 erregistroan irakur daitezke.

DC2102b zerrendan esanguratsuak hiru mota desberdinetan sailkaturik agertzen dira:

- **“HS”**-koak departamentuaren proiektu baten barrukoak dira eta aurten **29** izan dira beren batz besteko propioa **8,57** delarik
- **“BP”**-koak Gasteizko berritzeguneetan “Berritzeprest” esaten dugunaren barrukoak dira, hau da, “Ikastetxeetan lekuan lekuko berritzegunearekin batera prestakuntza-jarduerak” bideratzeko eskuhartzeak, guk “berritzeprest” izendatzen ditugunak. Aurten **23** eskuhartze esanguratsu egin dira modelatitate honetan, beren batz besteko propioa **8,62** delarik.
- **“ZG”**-koak beti izan dira ikasturtean zehar bapateko eskaerak (ez daudenak lotuta ez proiektu batekin ezta ere “berritzeprest” batekin) atenditzeko gauzatu ditugunak. Ikasturte honetan berriro ere, ordea, epigrafe honekin PEG moduluen formakuntzarekin erlazionatutako esku-hartzeak apuntatu behar izan ditugu. Horregatik, igaro ikasturtean bezalaxe, kopurua izugarri altuagoa egin zaigu: **93**. Hauetatik bakarrik **4** izan dira, demagun, ziurtagiririk gabeko “puruak”, gainerako **89**ak PEG moduluekin erlazionatuta egon direlarik.


Azpimarratzekoa da PEG moduluekin erlazionaturiko 93 esku-hartze esanguratsuen batz bestekoa nabarmenki baxuagoa izan dela: **7,91** hain zuzen (lau ZG puruena **8,08**)

*Gasteizko Berritzeguneetan eskuhartze bat esanguratsutzat jotzeko bi baldintza hauek bete behar dira: ikastetxeko klaustro edota klaustroaren talde bati formakuntza ematea eta formakuntza horrek sopsatzea gutxienez bi saio/4 ordu. Eskuhartze esanguratsu horiek beren balorazio propioa dute eta hori ere isladatzen da txantiloietan honetan.*



- [DC2103](#) txantiloan ikastetxeen gure lanarekiko asetze-maila ikus daiteke: urtero ekainean zehar eta gure eskuhartze guzti guztiak biltzen dituen tantiloi baten bidez ikastetxe guztiei balorazio bat eskatzen diegu eta informazio hori honetan kontsulta daiteke. Aurten ez da egon huts egin duen ikastetxerik eta bisitagarriak diren 106 ikastxetean lorturiko bataz-bestekoa **8,46**koa izan da.

Era grafikoan datu historikoak hauexek dira:




## PR22-Prestakuntza ekintzak

Ikasturtean zehar, Gasteizko Beritzegune hauek hainbat prestakuntza ekintza eskeintzen dizkiete arabako irakasleei. Horiek guztiak DC2206 txostenean agertzen dira zerrendatuta.

Prestakuntza ekintzak hainbat mota desberdinetakoak izaten dira eta datu zehatzak eman baino lehenago, mota hauek ondo bereiztea komenigarria da:

- *Mintegiak, ikastaroak eta hitzaldiak*. Hauek baloratuak dira eta emaitza horiek ikus daitezke txostenean.
- [DC2206](#) txostenean, ikasturte honetan **103** kode desberdin eman direla ikus daiteke. Dena den, benetan erabat gauzatu direnak **85** izan dira. Datu hau berezi behar da zeren eta barruan daude ikasturtean zehar eginiko **23** berritzeprestak eta horiek baloratuta daude esku-hartze esanguratsu bezala. Beraz, hauek dira :
  - Mintegi baten parte eta kanpoko emale batek emanak izan direnak. Hauek kode propioa dute (parte diren mintegiaren kodea ez den beste kode bat) baina ez balorazio propiorik (mintegiaren balorazio barnean xurgatuta baitago). Kode propioa ematearen arrazoia da emaleak ahalik eta lasterren (eta ez mintegi osoa amaitzean) erraztea. Hauek, beraz, kalifikaziorik gabe agertzen dira zerrendan eta **urdinez markaturik**. **16** izan dira horrelako kodeak.
  - **2** "erori" dira matrikulazio oso txikia izateagatik. Gauzatu ez diren prestakuntza ekintza hauek **arrosaz markaturik** agertzen dira zerrendan.
- Ebaluatutako **85** prestakuntza-ekintzeen lorturiko batz-bestekoa **8,46**koa izan da. Aipatzekoa da **23** Berritzeprestak izan direla eta horiek zerrendan **horiz** markaturik daude.
- Hau da, 85 horiei kentzen bazaizkie 23 berritzeprestak 62 mintegi eta ikastaroak geratzen dira, zeinen batz bestekoa **8,42** izan den.


Grafiko honetan ikasturtetan zeharkako joera ikus daiteke:




### PR23-Hezkuntza Premia Bereziak

Gasteizko Berritzeguneetan dauden 14 HPB-ko aholkularitzek gauzaturiko lana bai diagnostiko arloan bai ACIen tramitazioarenean ondoko txantiloietan isladaturik geratzen da:

- [DC2301\\_1](#), [DC2301\\_2](#), [DC2301\\_3](#). Hiruhilabetero diagnostikoen datuak biltzen dituen. Aurten, guztira (179 + 332 + 315) **826** diagnostiko egin dituzte, horietatik **818** epean (%99)



[DC2302](#). CNE-ACIen tramitazioen datuak biltzen dituena ikasturte honetan **307** ACI izan dira kudeatuak, den denak epean.



## PR31-Ez Adostasunak

Gure Kudeaketa Sistemak adierazleak ditu eta horietako batekin ez dugunean betetzen “Ez Adostasun” bat egin behar da. Hurrengoak dira adierazleak memoria honek biltzen dituen prozesuetan:

### *PR21 Aholkularitza*

- Bisitagarriak diren ikastetxeen %100ean egin behar da “Ikasturte hasierako bisita”
- Ikastetxeen asetze mailen batezbestekoa izan behar da gutxienez 6-koa eta jaso behar ditugu Bisitagarriak diren ikastetxeen %100ean.
- Eskuhartze esanguratsu guztiak baloratu behar dira amaitzean eta baten balorazio kuantitatiboa ezin da 6koa baino txikiagoa izan.

### *PR22 Prestakuntza*

- Ikastaro, mintegi eta, oro har, prestakuntza ekintza guztiak baloratu behar dira eta baten balorazio kuantitatiboa ezin da 6koa baino txikiagoa izan.


### *PR23 Hezkuntza Premia Bereziak*

- Diagnostiko bat egiteko eskaera jasota hurrengo 30 egunen epean egin behar da.
- CNE-ACI bat tramitatzeko eskaera jasota hurrengo 30 egunen epean egin behar da.

Ikasturtean zehar egondako “Ez Adostasun” guztiak [LI3101](#) zerrendan agertzen dira. Aurten **11** izan dira:

- **8** PR23an, HPB-ko aholkulariek, arrazoi desberdinengatik, ezin izan dituztelako egin diagnostikoak epean.
- **3** PR21ean, 2 ez lortzearren 6ko balorazio minimoa esku-hartze esanguratsuetan. Hirugarren bat ezin egin ahal izateko epean ikasturteko hasierako bisita 106 ikastetxe bisitagarrietan, zerbait bere horretan zaila bada ere (oso adierazle exigentea ipini diogulako gure buruari kontu honetan) aurten berriro oso berandu heldu den aholkulari bat egon delako.

## Ez Adostasunen Kopuruen historikoa



### PR50-ERREGISTRO KOADERNOA

- [CR5001](#)
- [CR5002](#)
- [CR5003](#)
- [CR5004](#)
- [CR5005](#)